

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Jendaurrean jartzea LHOZren 2019ko erroldak

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren Foru Arauaren 21.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean jartzen dira hauek: errolda, jabetza agirien zerrenda, landa ondasun higiezinaren gaineko poligonokako finken zerrenda eta hiri ondasun higiezinaren gaineko titularrak alfabetikoki jasotzen dituen errolda, denak 2019koak.

Aipatutako erroldak jendaurrean jartzen dira udaletxeko idazkaritzan hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko, eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Lagrán, 2019ko maiatzaren 2a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ